



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ohikoa

Eguna: 2021.09.13

Ordua: 19:00tan

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/07/21ko akta aho batez onartzen da.

2. 2021-2022 EKITALDIRAKO MENDIKO LANEN LIZITAZIO EGITEKO PLEGUAREN ONESPENA.

Idazkariak 2021-2022 kanpainarako mendi komunaletako lanak egiteko obra kontratua lizitazio bidez esleitu beharra dagoela azaltzen du, izan ere, 43.675,92 €ko (BEZa kanpo) kopurua duen obra bat egin beharko litzateke. Horrek, egotzi egiten du kontratazioa Kontratu Publikoei buruzko

2/2018 Foru Legeko 81. artikuluan xedatutako zenbateko txikiagoko prozeduraren bidez egitea. Horregatik, idazkariak aipatzen du, egin beharreko lanak ikusirik, lege bereko 80. artikuluan xedaturiko prozedura sinplifikatu bidezko kontratazioa egitea ongi legokela.

Zentzu horretan, prestaturiko plegu administratiboak azaltzen ditu idazkariak. Bertan, bertzeak bertze, esleitzeko irizpideak eta prozeduraren nondik norakoak azaltzen dira. Era berean, prozedura sinplifikatua jarraitu ezker, borts enpresa ezberdinei gonbidapena bidali beharko litzatekela azaltzen du. Azkenik, egin beharreko lanak BASARTEA enpresak prestaturiko proiektuaren arabera egin beharko lirartekeela dio idazkariak.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- 2021-2022 kanpainarako mendi komunaletako lanen kontratuaren lizitazioa kudeatzen duen plegu administratiboa onartzea.

2.- Kontratuaren lizitazioa prozedura sinplifikatu bidez egitea.

3.- Borts enpresa hauei lizitazioan parte hartzeko gonbidapena bidaltzea:

- LASAGA ANAIK REPOBLACIONES, S.L.
- REPOBLACIONES AGUINAGALDE, S.L.
- BERDABIO BASOGINTZA, S.L.
- OIHAN ZERBITZUAK, S.L.
- REPOBLACIONES ETXARTE, S.L.

3. AZKILARREA-AIENTSAKO BIDEA MOLDATZEKO HITZARMENAREN KUDEAKETA ONESPENA.

Idazkariak Azkilarrea-Aientsa inguruko bidea moldatzeko egin diren lanen berri ematen du. Era berean, lan hauen kostua 11.056,21 €koa (BEZa barne) izanen litzatekela aipatzen du. Obra egin ahal izateko eta haren kudeaketa hobetzeko, baimena eskatu zaie ukitutako lurzatiari jabeen beren lurretan lur-mugimenduak eta zuhaitz mozketak egin ahal izateko, eta jabe guztiek baimena eman dute, baieztapen baten esperoan.

Era berean, Imanol Lukanbio zinegotziak Usua Ehiztari Elkarteko batzorde paritarioan egindako bilera hartutako akordioaren berri ematen du. Bertan, elkarteak 2021eko urteko aportazioko 3.008,83 € Azkilarrea-Aientsa inguruko bidea moldatzeko inbertitzea adostu zela azaltzen du, baina kopuru honi Bagatsartera doan kamioi baten kostua kendu beharko litzatekela dio ere. Hori horrela izanik, egin nahi diren lanen kostuaren batz bertzekoa 8.800,00 €koa (BEZa barne) izatea espero da.

Zentzu horretan, Dabid Iturria alkateak gastua finantzatu ahal izateko inguru horretako landetxeekin bilera bat egitea aurreikusita dagoela azaltzen du, hauek aportazioren bat eginen luketen hausnartzeko. Bilera, 2021eko irailaren 15ean eginen da. Udala jakitun da landetxeak ez

daudela behartuta inbertsio hori kofinantzatzeko, beraz, euren aportazioa, hala gertatuz gero, borondatezkoa izanen litzateke. Halaber, Udalak ere bere gain gastuaren zati bat hartuko lukeela dio alkateak, honen kopurua aipaturiko gastuaren erdia izatea espero da.

Udaleko kideek gaiaren inguruan eztabaidatu eta hausnartzen dute.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Landetxeak ados egonez gero borondatezko aportazio bat egiteko, hitzarmen bat egiteko onespina ematea.
- 2.- Udalak, hala behar izanez gero, egiteko falta den gastuaren erdia bere gain hartzeko onespina ematea.
- 3.- Alkateari nahikoa ahalmen ematea eginen litzatekeen hitzarmena sinatzeko.

4. 0518LGC MATRIKULA ZENBAKIA DUEN TAXIAREN ZEHAPEN-PROZEDURA IREKIERAREN ONESPENA.

Idazkariak Nafarroako Foruzaingotik helarazitako I16/2021 txostena azaltzen du. Bertan 0518LGC matrikula zenbakiarekin identifikatutako lizentzia duen pertsonak, taxi zerbitzua ematen ari zen bitartean, egindako arau-hauste hagitx larri baten berri ematen da. Aipatu bezala, arau-hauste hagitx larri hau Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legeko 59.b) artikuluan xedaturik dago.

Zentzu horretan, lege bereko 63. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, administrazio zigor bat jarri beharko litzatekela aipatzen du idazkariak. Kasu honetan, arau-hauste hagitx larria denez, 2.600,00 €ra arteko isun bat eta lizentzia gehienez ere urtebetez kentzea ekar dezake.

Halaber, Nafarroako Gobernuako Trafiko Sailak Udalak hartutako erabakia beraiei helarazteko eskatu duela ere aipatzen du idazkariak.

Udaleko kideek gaiaren inguruan eztabaidatu eta hausnartzen dute.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- 0518LGC matrikula zenbakia duen taxiko lizentziaren titularrari 1.301,00 €ko isuna jartzea eta lizentzia 6 hilabetez kentzea.
- 2.- Zehapen-prozedura honi hasiera emateko alkate Ebazpen bidez egitea adostea eta bertan azaltzea gainontzeko alderdiak.
- 3.- Akordio hau 0518LGC matrikula zenbakia duen taxiko lizentziaren titularrari jakinaraztea.

5. CLARA LEIZA AGARA ANDEREAREN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO, HILERRIKO 42 ZK. DUEN HILOBIKO DIRUA ITZULTZEKO.

Idazkariak Clara Agara Leiza andereak egindako eskaeraren berri ematen du. Kasu Honetan, Leiza andereak bere gurasoen izenean dagoen 42 zk. duen hilobiaren panteoia, obra osoaren parte, harriz forratzea eta kontzesioari dagokion urteen proportzioaren diru itzulketa egiteko eskatzen du, horrela hilobiaren kontzesioari uko egiteko. Horrela bada, 1.739,00 €ko itzulketa bat egitea eskatzen du interesatuak.

Era berean idazkariak azaltzen du hasiera batean hilobiko kontzesioaren dirua itzultzeko eskatu zuela interesatuak. Kontzesioa 50 urtetako egiten da eta honen kostea 100,00 €koa da. Eskaera hau 88/2021 Ebazpenaren bidez ebatzi zen, bertan 18 urtez kontzesioa Leiza Agara familiak eduki zuela ikusirik, falta ziren 32 urte horien proportzioa itzultzen zen, hau da 64,00 €. Dena dela, Leiza anderea horrekin ados ez zegoela azaldu zuen eta horregatik aurkeztu zuen aurreko paragrafoan azalduko eskaera.

Udaleko kideek gaiaren inguruan eztabaidatzen dute. Alde batetik, ez dute bidezkoa ikusten obra osoaren gastuaren 60,00 €ak itzultzea, izan ere, aportazioa hau borondatezkoa izan zen. Bertze aldetik, panteoia eta harriz forratzearen zatia itzultzearekin ados daude, baina honako hau kontzesioa egin zenetik uko egiten dion arte pasatako urteen proportzioa kendu beharko litzaiokela diote. Azkenik, diru itzulketa hau betiere itzuliko den kopurua ordaintzeko prest dagoen hilobi eskatzaile bat izatea eta hilobian familiaren izena ezabatzearekin baldintzatua egonen litzatekela dio udalbatzak.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Leiza Agara familiari 1.097,60 € itzultzea, 42. zk duen hilobiaren kontzesioa bukatzeko falta diren 32 urte horien proportzio bezala, beti ere baldintza hauek betez:

- 42. zk duen hilobiko obraren 1.033,60 € eta kontzesio berriaren 100,00 €ak ordaintzeko interesdunen bat izatea.
- Hilobiak familiaren izena duen markaren bat baldin badu, honako hau ezabatzea. Ezabatze honen kostua Leiza Agara familiak bere gain hartu beharko du. Hala adostuz gero, Udalak egingen du izenaren ezabatze lana eta honen kostua itzuliko den diru kopurutik deskontatuko da.

2.- Akordio hau Clara Leiza Agara andereari jakinaraztea.

3.- Leiza Agara andereak bere adostasun azaltzen badu aipatutakoarekin, 42. zk duen hilobiaren kontzesio berriaren kudeaketei ekitea.

6. SARE ERAKUNDEAREN ADIERAZPEN MOZIOAREN ATXIKIPEN ONESPENA.

Idazkariak Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarrak helarazitako mozio proposamenaren berri ematen du.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Presoen urruntzeari eta salbuespenezko espetxe politikari dagokion erakunde adierazpen/moziora atxikitzea.
- 2.- Akordio Sare Herritarrak (Nafarroa) erakundeari jakinaraztea.

7. AMEKURRUN, AMETXOKO ETA ZERRADOKO BORDA INGURUKO OIHAN ENKANTEA LARRETXE A EGURRAK, S.L. ENPRESARI ESLEITZEKO PROZEDURAREN ONESPENA.

Idazkariak Amekurrun, Ametxoko eta Zerradoko Borda inguruko oihan enkantearen berri ematen du. Zentzu horretan, azaltzen du 3 enkante egin zirela hasierako prezioetik % 20ko deskontua aplikatuz. Dena dela, hasiera batean ez ziren eskaintzarik jaso.

Berriki, LARRETXE A EGURRAK, S.L. enpresak eskaintza bat aurkeztu duela aipatzen du idazkariak, baina hau 3. enkantean zehazturiko prezioa baino gutxiagokoa izan da, hau da, 6.200,00 €ko proposamena aurkeztu du (BEZa kanpo). Proposamen ekonomiko honen barnean 10 tona egur duten hiru lote banatzea dago.

Hori horrela izanik, idazkariak azaltzen du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 166.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz, egindako proposamen ekonomikoa Nafarroako Gobernuko Baso eta Ehiza Zerbitzura helarazi dela txostena prestatu dezaten. Zerbitzuko txostena prest egotean, aldekoa bada, LARRETXE A EGURRAK, S.L. enpresari enkantea esleitzen ahalko dela aipatzen du idazkariak.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- LARRETXE A EGURRAK, S.L. enpresari enkantea esleitzeko jarraituriko prozedurari onespena ematea.
- 2.- Nafarroako Gobernuko Baso eta Ehiza Zerbitzuaren txostena egindako proposamen ekonomikoaren aldekoa bada, nahikoa ahalmen ematea alkate Ebazpen bidez LARRETXE A EGURRAL, S.L. enpresari esleitzeko.

8. ALKATEAREN EBAZPENAK


78/2021-94/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte